



LESAKAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)

Telf. 948637005

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

Lesakako Udalak Uraren Bailarak-ekin elkarlanean Bidasoako Bide Berdearen zati bat egokitu du

- *Lan hauetarako Nafarroako Gobernuaren Tokiko Agenda 21aren dirulaguntza hartu da, Uraren Bailarak-ek ere bere aportazioa egin duelarik.*

Urriaren lehen hamabortzaldian, Lesakako Udalak Uraren Bailarak-ekin (Baztan-Bidasoako udalerrietako Turismo Elkargoa) elkarlanean bide berdearen egokitzapen lanak egin ditu.

Lanak Erramuegi parajeen egoera kaxkarrean zegoen maldaxka konpontzeko egin dira, horrela bidea hormigoiztatu da, areka egin da eta sakangune bat ere egin da, euriteen ondorioz urak bidea gehiago hondatu ez dezan.

Lanen kostua 20.195,75 €-koa izan da. Inbertsio hau egiteko Nafarroako Gobernuak 14.137,03 euroekin kofinantzatu ditu lanak Tokiko Agenda 21 dirulaguntzaren bidez. Bestalde, Uraren bailarak kostuaren gainontzeko diru kopurua emanen du.

Obra honekin natura-bidearen irisgarritasuna eta segurtasuna hobetu da, oinezkoentzako eta txirrindularientzako pasabidea egokituz. Horrela, Bidasoako udalek, Uraren Bailarak-en bidez, beren ingurune natural aberatsaren jasangarritasunaren aldeko konpromisoa sendotu dute, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko eta turismo-proiektu osasungarri bat sendotzeko.

Dirulaguntzaren tramitaziorako Cederna Garalurren laguntza izan da.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

ESTRATEGIA DE ENVEJECIMIENTO
ACTIVO Y SALUDABLE DE NAVARRA
2017 - 2022

MÁS DE 60 TIK GORA
ACTIVAR: NYVE MEJOR
BIZKORTU ZAHATEZ, HOBETO BIZI

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.lesaka.net/>
Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikoan kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.lesaka.net/eu/>



0092099838121306991053